



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea  
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO  
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

## **GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2014/2015 ikasturtea**

**Elejabarri eskolako aldaketa prozesua, Ikas Komunitate  
proiektuaren bitartez**

**Egilea: Jennifer Palacio Vega**

**Zuzendaria: Nekane Beloki**

**Leioan, 2015eko ekainaren 1ean**

## AURKIBIDEA

Sarrera .....	3
1. Marko teorikoa eta kontzeptuala: .....	4
1.1. Ikas Komunitateak .....	4
1.2. Aurrekariak .....	5
1.3. Ikaskuntza dialogikoa .....	7
1.4. Aldaketa faseak .....	9
1.5. Arrakastazko jarduerak .....	10
1.6. Boluntarioak .....	11
1.7. Ikas komunitateak Euskal Herrian .....	12
1.8. Elejabarri eskolako esperientzia .....	13
2. Helburuak .....	14
3. Hipotesiak .....	15
4. Metodologia .....	16
5. Lanaren garapena .....	18
6. Emaitzak eta ondorioak .....	25
7. Erreferentzia bibliografikoak .....	27

### ERANSKINAK

- Lehenengo eranskina. “Diferencias entre investigación cualitativa y cuantitativa”
- Bigarren eranskina. Elkarrizketak
- Hirugarren eranskina. Elkarrizketen transkripzioak

## **Elejabarri eskolako aldaketa prozesua, ikas komunitate proiektuaren bitartez.**

**Jennifer Palacio Vega**

UPV/EHU

### **Laburpena**

Burututako ikerketa honen bidez, Ikas Komunitateen proiektuak, Elejabarri eskolan izan duen eragina ikustea bilatu da, eskolan sortu den aldaketa prozesua aztertuz. Horretarako, metodologia kualitatiboa erabili da, elkarrizketa erabiliz, beharrezko datu eta informazio guztiak lortzeko asmoz. Egindako elkarrizketa hauen bidez, ikusi da, Ikas Komunitateen proiektuari esker, aldaketa nabaria egon dela eskolan, aztertutako aspektu edo kategoria guztietan (absentismo maila; ikasle kopurua eta hauen ezaugarriak; ikasleen jarrerak; ikasleen, irakasleen eta familien arteko harremanak eta ikasleek lortutako emaitzak). Hori dela eta, Ikas Komunitateen proiektuak, eskolan eragin handia izan duela ondorioztatu da.

*Ikas Komunitateak, eskola, Ikaskuntza dialogikoa, Talde elkarreragileak, Aldaketa prozesua*

### **Resumen**

Mediante esta investigación, se ha buscado ver el impacto que ha tenido el proyecto Comunidades de Aprendizaje en el colegio Elejabarri, viendo el proceso de cambio que éste ha producido en el colegio. Para ello, se ha utilizado una metodología cualitativa, utilizando la entrevista, para recoger los datos necesarios. Mediante esas entrevistas se ha visto, que gracias al proyecto, ha habido un gran cambio en el colegio, en todos los aspectos investigados (absentismo; número y características de alumnos; actitudes; relaciones y resultados). Por ello, se ha llegado a la conclusión de que este proyecto está siendo muy efectivo en dicho colegio.

*Comunidades de aprendizaje, escuela, Aprendizaje dialógico, Grupos interactivos, proceso de cambio*

### **Abstract**

Studying the impact that "Learning Communities" project has had in Elejabarri School has been the purpose of this research, by seeing the process of change that the project has had in the school. A qualitative methodology has been used to get that goal, using the interview to collect the necessary data. These interviews have shown that "Learning Communities" has caused a great change in Elejabarri School in all the aspect that have been investigated (absenteeism, number and characteristics of students, attitudes, relationships and results). Therefore, the conclusion that has been reached is that this project is being very effective at this school.

*Learning communities, school, Dialogic learning, Interactive groups, process of change*

## Sarrera

Ikerketa izaera duen lan honen muina, lanaren izenburuak esaten duen moduan, Elejabarri eskolako aldaketa prozesua aztertzea da, Ikas Komunitate proiektuaren bitartez. Gai hau aukeratu nuen, Elejabarri eskola eta Ikas Komunitateen proiektua ezagutzen nuelako eta interesgarria iruditzen zitzaidalako proiektuaren eraginkortasuna aztertzea eta eskolan sortu den aldaketa prozesua ikustea. Beraz, lan honen helburua, Elejabarri eskolako, aspektu konkretu batzuen (ikasleen jarrera; ikasleen emaitzak; absentismo maila; ikasle kopurua eta hauen ezaugarriak; eta irakasleen, ikasleen eta familien arteko harremanak) aldaketa prozesua aztertzea eta konparatzea da.

Horretarako, nire lana zati desberdinetan banatu dut. Hasteko, marko teoriko eta kontzeptual bat sortu dut, gaiarekin erlazio zuzena duten aspektu desberdinak landuz (Ikas Komunitateak, aurrekariak, ikaskuntza dialogikoa, aldaketa faseak, arrakastazko jarduerak, boluntarioak, Ikas Komunitateak Euskal Herrian eta Elejabarri eskolako esperientzia). Behin hori eginda, lanaren helburuak zehaztu ditut, bai helburu nagusia, baita helburua zehatzak ere. Jarraian, helburuak kontuan hartuz, hipotesi edo uste batzuk planteatu ditut, helburuen inguruan ditudan usteak eta ideiak argi utziz. Hurrengo atala, metodologiaren atala izan da, eta metodologia kualitatiboa erabiltzea erabaki dut. Elkarrizketak erabili ditut nire helburua lortzeko asmoarekin. Hiru elkarrizketa desberdin burutu ditut, eskolarekin harreman zuzena duten pertsoneri (zuzendaritza taldeko kide bati, eskolako ikasle batzuen ama bati eta eskolako irakasle bati). Behin elkarrizketa horiek eginak, hauen transkripzioak burutu ditut eta elkarrizketak analizatzeari ekin diot. Horretarako lanaren hurrengo atala sortu dut, lanaren garapena; Non hiru elkarrizketetatik jasotako datuak, landutako marko teorikoaren itzalpean interpretatu ditudan. Beraz, datuak aztertu ondoren, lanaren emaitzak islatu ditut eta emaitza horiek nire hipotesiarekin kontrastatu ditut, ondorio batzuk sortuz eta, beraz, lanaren hurrengo atala sortuz. Erabilitako iturri bibliografikoekin eta eranskinekin eman diot bukaera nire lanari.

## 1. Marko teorikoa eta kontzeptuala

Marko teorikoa osatzeko, hainbat dokumentu desberdinetan oinarritu naiz, liburuak, aldizkariak, artikulak ... Beraz, ondoren aipatzen ditudan ideiak eta hausnarketak, datu base desberdinetan aurkitu ditudan dokumentuetan oinarritzen dira:

DATU BASEAK	DESKRIPTOREAK	Zenbat erreferentzia atera dira?	Zenbat erabili ditut?
DIALNET	Comunidades de Aprendizaje	2479	4
DIALNET	Aprendizaje Dialógico	504	1
DIALNET	Comunidades de Aprendizaje Euskadi	4	1
ERIC	Reforming Education	1403	1
ERIC	Process for Change in Education	777.765	1

### 1.1. Ikas Komunitateak

Vallsek (2000) dioten moduan, Ikas Komunitateen proiektua:

*“Es un proyecto de transformación social y cultural de un centro educativo y de su entorno para conseguir una sociedad de la información para todas las personas, basada en el aprendizaje dialógico, mediante una educación participativa de la comunidad, que se concreta en todos sus espacios incluida el aula” (134).*

Beste era batean esanda, **Ikas Komunitateak**<sup>1</sup> arrakastazko ekintza batzuek osatutako proiektua da, transformazio sozialera eta hezitailerara zuzenduta daudenak (Diez Palomar & Flecha, 2010). Proiektu honek, bi lehentasunei erantzuna ematea lortu nahi du, errendimendu akademikoa hobetzea eta bizikidetasun arazoak hobetzea (Rodríguez, 2012). Beraz, Ikas Komunitateak guztiontzako informaziozko gizartea lortzeko eta berdintasunezko

<sup>1</sup> Informazio gehiago lortzeko, hurrengo web orria kontsulta daiteke: <http://www.comunidadesdeaprendizaje.net>

hezkuntza proposamen bezala sortzen dira. Guztiok ahalik eta hezkuntza hobereana izatea sustatzen duena, guztion gaitasunak bultzatuz eta azpimarratuz, honetarako komunitatearen laguntza erabiliz. Izan ere, Vygotskyk (1979,130) esan zuen moduan, *“el aprendizaje activa una serie de procesos internos de desarrollo que son capaces de operar sólo cuando el niño está interactuando con personas de su entorno y en cooperación con sus compañeros”*. Beraz, proiektu honekin ez dira gabezietan zentratzen, baizik eta guztiok kalitatezko ikaskuntza bat izatean (Elboj, Puigdemívol, Soler & Valls, 2002).

Proiektu hau, baztertze sozialaren ondorioz, desberdintasunak nagusi diren hezkuntza zentroetara zuzentzen da, batez ere. Baina nahiz eta horrela izan, edozein zentrok izan dezake Ikas Komunitateen proiektua. Proiektu honen bidez, edozein zentrotan heziketa dinamikak eta dinamika sozialak hobetu ahal direlako; baztertze soziala eta eskola porrota prebenitu ahal daitezkeelako; parte hartzea, solidaritatea eta dialogoa bezalako baloreak sustatzen dituelako eta ez duelako soilik eragiten hezkuntza zentroetan; auzoan, herrian, etab. eragina du ere (Folgueiras, 2011). Beraz, proiektu hau, **klabe pedagogiko** batzuetan oinarritzen da (Elboj et al., 2002):

- Parte hartze aktiboa. Zentroan aurrera eramaten diren ekintzen planifikazioan, errealizazioan eta ebaluazioan, guztiek (irakasleak, familia, boluntarioak, instituzioak, auzoko erakundeak ...) parte hartu behar dute modu aktiboan.
- Ikaskuntzaren zentralizazioa. Kanpoko aldagai sozialak kontuan hartu gabe, pertsona guztiek bere gaitasun maximoak lortu ahal dituzte.
- Ikaskuntza eta formazioa, informazioaren gizarte baterako.
- Parte hartzaileen aukera positiboetatik abiatzea.
- Aurrerapen etengabekoa (Hezkuntza prozesua eta transformazioa). Parte hartzen duten pertsona guztiek ebaluatzen dute.

## 1.2. Aurrekariak

Gauza guztiak bezala, Ikas Komunitateen proiektuak aurrekari batzuk ditu. Ikas komunitateek, erreferente bezala hartu zituzten teoria eta praktika inklusiboak, berdintasunezkoak eta dialogikoak. Bartzelonako unibertsitateko

“*Centro Especial de Investigación en Teorías y Prácticas Superadoras de Desigualdades*” (CREA) zentroa, 80ko hamarkadan kontzepzio hauek garatzen hasi zen. Lehenengo momentuetan, zona ez pribilegiatuetan garatzen dira, batez ere, **La Verneda-Sant Martiko**<sup>2</sup> (Bartzelona) helduen eskolan, hain zuzen ere. Auzoko pertsona batzuk, parte hartze hiritarraren eta kulturalaren bidez gizarte hobe bat sortzeko idealarekin, eraikina okupatu zuten (gaur egun eskola dagoen eraikina). Bertan zentro kultural bat sortu zuten, non haurtzaindegia, helduentzako hezkuntza zentroa eta gazteen taldea zeuden (Racionero & Serradell, 2005). Beraz, 1978an, lehenengo Ikas Komunitatea sortzen da “La Verneda-Sant Martí”-ko pertsona helduen eskolan (Sánchez, 1999).

Zentroa horrela definitzen da: plurala, parte hartzailea, demokratikoa, irekia eta auzora integratua, parte hartzaileen berdintasun kulturala eta hezitzailea bilatzen duena (Folgueiras, 2011). Beraz, zentro honek, hurrengo lemarekin: “*Una escuela donde las personas se atreven a soñar*”, kalitatezko hezkuntza, demokratikoa, komunitatera irekia, parte hartzailea, plurala eta eraldatzailea bultzatzen du, ikaskuntza dialogikoaren bidez. Izan ere, eskola honen ezaugarri nabarmenetakoa bere antolakuntza dialogikoa da, non hezitzaileek eta parte hartzen duten pertsonak, batera lan egiten duten eskolaren antolakuntzan, guztiek erabakiak hartzen eta haien beharrak, interesak eta ideiak adierazten. Urteetan zehar, eskola hau auzoaren eraldaketan liderra izan da. Eskolan sortzen den parte hartzearen ondorioz, auzokideak, haien errebindikazioak, administrazio lokaletara heltzea lortu dute, auzoan hainbat hobekuntza lortuz, hala nola, Bartzelonako metroa auzora heltzea, asfaltatzea, monumentu historikoak mantentzea ... (García, Leena & Petreñas, 2013).

Proiektua aurrera zihoan ahala, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, antzeko esperientziak garatzen zituzten testuinguruak ezagutu zituzten, arrakastazko eta baliozko emaitzak ematen zituztenak. Horien artean, School Development Program<sup>3</sup> (Garapen Eskolarreko Programa), Yale unibertsitatekoa (Comer, Haynes, Joyner & Ben - Avie, 1996a, 1999b); Success for All<sup>4</sup>

---

<sup>2</sup> Informazio gehiago lortzeko, hurrengo web orria kontsulta daiteke: <http://www.edaverneda.org>

<sup>3</sup> Informazio gehiago lortzeko, hurrengo web orria kontsulta daiteke: <http://info.med.yale.edu/comer/>

<sup>4</sup> Informazio gehiago lortzeko, hurrengo web orria kontsulta daiteke: <http://www.successforall.net/>

(Guztiontzako Arrakasta), Johns Hopkins unibertsitatekoa (Slavin, Madden, Dolan & Wasik, 1996; Slavin, 1996; Slavin & Olatokunbo, 1998) eta Accelerated Schools<sup>5</sup> (Eskola azeleratuak), Stanford unibertsitatekoa (Levin, 1987a, 1993b, 1995c).

Esperientzia honen bidez, ikusi zen dialogoak motibazioa sortzen zuela eta pertsona guztien inteligentzia kulturala errekonozitzen zuela (Flecha, 1997). Honetaz gain, eskola porrota eta gatazkak gainditu ziren, zaurgarritasunezko egoeran dauden pertsonak barne hartzen zuena. Beraz, hasieratik, La Vernedako eskolak emaitza oso onak izan ditu eta eragin handia auzoko bizitzan. Bi urte pasa ondoren, 100 inskripzio baino gehiago zituen eta 2003an, 1650 pertsona inguruk parte hartu zuten. Arrakasta hau, bere funtzionamenduaren ondorioz ematen da, non hasieratik parte hartzaileen iritzia kontuan hartzen da erabakiak hartzeko orduan (Racionero & Serradell, 2005). Hasieratik, eskola honetan erakutsi zuten hezkuntzan posiblea dela berdintasunezko ikuspegi bat, desberdintasun kulturalak gainditzeko (Flecha, 1997).

Eskola honetan aurrera eramaten zen eredua, 90ko hamarkadan, beste hezkuntza zentroetara zabaldu zen: Haur Hezkuntzako zentroetara, Lehen Hezkuntzako zentroetara eta Bigarren Hezkuntzako zentroetara. Ikas Komunitateen proiektuarekin aurrera eginez. Gaur egun, Espainia osoan 200 zentro inguruk eramaten dute aurrera proiektu hau (García et al., 2013).

### **1.3. Ikaskuntza dialogikoa**

Ikas Komunitateen arrakasta, bere marko teorikoari lotuta doa: ikaskuntza dialogikoari (Flecha, 1997; Aubert, Flecha, Garcia, Flecha & Racionero, 2008). Aubertek et al. (2008) dioten moduan:

*“El aprendizaje dialógico se produce en interacciones que aumentan el aprendizaje instrumental, favorecen la creación de sentido personal y social, están guiadas por principios solidarios y en las que la igualdad y la diferencia son valores compatibles y mutuamente enriquecedores” (91).*

---

<sup>5</sup> Informazio gehiago lortzeko, hurrengo web orria kontsulta daiteke: <http://www.acceleratedschools.net/>



Beraz, **ikaskuntza dialogikoa**, berdintasunezko elkarrizketak sortzen dituen interakzioen emaitza da, hau da, erabaki batera heltzeko, pertsona desberdinak, berdintasunezko baldintzetan, argumentuak emanez sortzen den elkarrizketa (Elboj et al., 2002). Ikaskuntza dialogikoak, psikologia Vygotskianarekin (Vygotsky, 1979) eta teoria kritikoarekin (Freire, 2003) bat eginez, testuingurua eraldatzen du, guztiontzako ikaskuntza maximoa sortuz.

Beraz, ikaskuntza dialogikoa, berdintasunezko elkarrizketan eta pertsonen arteko harremanetan oinarritzen den ikaskuntza da. Aipatutako harreman horiek, ikaslearen eta irakaslearen artean sortzeaz gain, komunitateko kide desberdinekin sortzen dira ere (familia, auzoko erakundeak, hezkuntzako beste profesionalak edota boluntarioak). Ikaskuntza dialogikoan, ikasleen desberdintasunak errespetatzen dira, kontuan hartzen dira eta gauza berriak ikasteko modu positibo batean hartzen dira. Haien arteko harremanetan eta testuinguruaren eraldaketan enfasia jarriz, berdintasunezko hezkuntza bilatuz, guztiontzako hezkuntza (Diez-Palomar, Garcia, Molina & Rue, 2010). Honetan, **7 oinarritzko printzipio** bereiz daiteke (Flecha, 1997):

1. Berdintasunezko elkarrizketa: Iritzi guztiak dute garrantzia. Bakoitzak bere iritzia eman ahal du askatasun handiz.
2. Adimen kulturala: Bakoitzaren bizi esperientzia aberasgarria da, guztiok ikasteko egokia.
3. Aldaketa: Pertsonaren aldaketak ematen dira.
4. Hezkuntzaren dimentsio instrumentala: eduki akademikoen analisisa.
5. Zentzua sortzea: Zentzua sortzen denean, ikaskuntza baliagarri bat sortzen da.
6. Solidaritatea: Guztiontzako lekua dago, haien artean lagunduz eta kolaboratuz.
7. Berdintasunezko ezberdintasunak: Pertsonak, besteekin erlazionatuz ikasten eta aberasten gara. Pertsona bakoitza desberdina da, eta desberdintasun horiek, ezagutza eta ikaskuntza berriak ekartzen dizkigute besteei (Alvarez, Gonzalez & Larrinaga, 2012).

#### 1.4. Aldaketa faseak

Eskola bat Ikas Komunitate batean eraldatzeko, Elboj et al. (2002) autoreek, bi fase handi bereizten dituzte: martxan jartzea eta finkapena. Martxan jartze fasearen barruan, 5 fase desberdin bereizten dira (Rodriguez, 2012):

- **Sentsibilizazio fasea:** Honetan formazio kurtso bat ematen da, zentroan bertan ematen dena, bai irakasleei, bai familiari zuzentzen dena. Hemen ikas komunitateen esperientzia bizi izan duten pertsonak daude ere. Kurtso honetan, hainbat gauza desberdin ikusten dira, Ikas Komunitateen eredu teorikoa eta testuinguru soziala, zentroaren errealitatea, auzoa eta errekurtsioak. Honetan ere, familien eta irakasleen artean agertzen diren dudak agertzen dira.
- **Erabakia hartzearen fasea:** Zentroak planteatzen du Ikas Komunitatean transformatzen den ala ez. Hemen debate bat sortzen da, eta botazioekin ematen zaio bukaera fase honi. Irakasleen %90 proiektuaren alde egon behar da eta familien gehiengoa ere. Amaitzeko kontseilu eskolarrak onartu behar du proiektua.
- **Ametsaren fasea:** Honetan, ikasleak, familiak, irakasleak, edota komunitatearen ordezkariak batzen dira eta eskola idealean pentsatzen dute, nahi duten eskola amesten dute (Jaussi, 2003).
- **Lehentasunen selekzioaren fasea:** Errealitateari egokitu behar zaio oraingoan. Honetan, aldatu nahi ditugun gauzak hautatu behar dira, hobetu nahi dena eta kendu nahi dena.
- **Planifikazio fasea:** Fase hau, finkatu diren lehentasunen gainean garatzen da. Honetan funtzionatzen hasten dira, behar larriengan zentratuz eta eraldaketarekin hasiz.

Ikas Komunitateen eraldaketak, ez dauka amaiera finkorik, etengabeko hobekuntza bilatzen duelako (Elboj et al., 2002). Baina, horrela izan arren, azken fase bat dagoela esan dezakegu, finkapen fasea, iraupen zehatza ez duena, modu iraunkorrean aplikatzen dena. Honetan jarraipena bilatzen da, hau da, kurtso berriak, aurretik eraiki zenaren gainean hasten dira. Iraupen iraunkorra duten beste bi gauza, irakasleen eta boluntarioen formazioa eta

prozesuaren ebaluazioa dira, jarraiki aurrera eraman behar direnak (Rodriguez, 2012).

### 1.5. Arrakastazko jarduerak

Ikas Komunitateetan arrakastazko jarduera hezitzaile batzuk eramatzen dira aurrera. Komunitate zientifiko internazionalak demostratu duen moduan, ikasleen ikaskuntza hobetzen dutenak eta zentroko bizikidetzaren hobetzen dutenak. Hurrengoak dira arrakastazko jarduera hezitzaile hauek (INCLUDED, 2011):

- **Talde interaktiboak:** Talde interaktiboak, 4 edo 5 ikasleko talde heterogeneoak dira, heldu batek moderatzen dituenak (irakaslea, boluntarioa edota familiako kideak). Taldeak, heterogeneoak dira eta sexu, interes, gaitasun, kultura edo behar hezitzaile desberdinetako ikasleek osatzen dituzte taldeak, segregazioaren kontra eginez. Talde interaktiboekin emaitza oso onak lortzen ari dira, ikaskuntzari eta bizikidetzari dagokionez. Hauen bidez, interakzioak handiagotzen dira eta lan egiteko denbora eraginkorragoa da. Antolatze modu inklusiboa da eta honen bidez, balore, emozio eta sentimendu desberdinak garatzen dituzte ikasleek. Talde interaktiboetan, iraupen laburreko aktibitate konkretuak egiten dira, pertsona helduak taldea moderatzen duen bitartean. Pertsona heldu honek, ikasleak haien artean laguntzea, guztiek parte hartzea eta haien artean elkarrizketa egotea lortu behar du. Normalean, denboratxo bat pasatzen denean (15 edo 20 minutu gutxi gorabehera) talde bakoitza bere mahaitik altxatzen da eta beste mahai batean jesartzen da, aktibitatea eta tutorea aldatuz.
- **Tertulia dialogikoak:** Honetan, testu bat irakurtzen da eta ondoren honi buruzko tertulia bat sortzen da, testua komentatzen da. Hasiera batean, testua aukeratzen da eta finkatzen den eperako irakurritako eraman behar da (zatika irakurtzen da normalean), guztion artean komentatzeko (arreta deitu duena, beste testuekin erlazioa duena, gustatu zaiena, etab). Honen bidez, irakurtzeko konpetentzia hobetzen da, komunikatzeko gaitasuna hobetzen da, errespetua eta balorazio kritikoa sustatzen dira,

entzute aktiboa bultzatzen da eta interakzio aberasgarriak sortzen dira (Flecha, 1997). Tertulia dialogiko mota desberdinak daude: tertulia literarioak, tertulia musikalak, artezko tertuliak, matematikako tertuliak, tertulia zientifikoak, etab.

- **Komunitatearen parte hartzea zentroan:** Familiek eta komunitateko beste kideek, ikasleen ikaskuntza aktibitateetan parte hartzen dute, bai eskolako ordutegian, baita eskolaz kanpoko ordutegian. INCLUDEDek (2011) komunitatearen bost parte hartze mota desberdin definitzen ditu: parte hartze informatzailea, kontsultarako parte hartzea, parte hartze erabakitzailea, parte hartze ebaluatzailea eta parte hartze hezitzailea. INCLUDEDen (2011) agertzen den moduan, parte hartze mota hauetatik ebaluatzailea eta hezitzailea dira eraginkorrenak.
- **Irakasleen formazio dialogikoa:** Arrakastazko ekintzak aurrera atera ahal izateko, beharrezkoa da irakasleak formatuak egotea.
- **Familien formazioa:** Zentroen formaziozko eskaintza ez da soilik ikasleei irekitzen, familiei ere irekitzen da. Zentroak, espazioak eta formaziozko programak eskaintzen die familiei, haien eskaerak, interesak eta beharrak kontuan hartuz. Arrakasta gehien duen formazioa, familiekin garatzen diren tertulia literario dialogikoak dira.
- **Prebentzioaren eta konfliktoen erresoluzioaren eredu dialogikoa:** Eredu honetan, dialogoa erabiltzen da, desberdintasunak gainditzeko eta konfliktoei aurre egiteko. Eredu honek, bizikidetasunaren hobekuntza kualitatiboa ekartzen du, bai zentroan, baita komunitatean ere; elkarrizketak, gatazkak aurreikusten ditu. Beraz, gatazka bati aurre egiteko, pertsona guztien iritziak eta argudioak entzun behar dira (Rodriguez, 2012).

## 1.6. Boluntarioak

Boluntarioak, pieza garrantzitsuak dira Ikas Komunitateen proiektuan. Umeen ikaskuntza hobetzeko, ahalik eta interakzio gehien izatea garrantzitsua da, kalitatezko interakzioak. Zentzu honetan, boluntarioak, komunitateko pertsonak (famiak, ikasle ohiak, auzoko pertsonak, erakunde desberdinetako pertsonak, unibertsitateko pertsonak edota praktiketako ikasleak) dira, eta bere

parte hartzearekin eta konpromisoarekin, umeen interakzioak handiagotzen dituzte (Álvarez et al., 2012). Horrela izan arren, boluntarioen paperak ez die irakasleei haien rola kentzen, laguntzera etortzen direlako, betiere, konpromisoarekin, seriotasunarekin eta erantzukizunarekin. Boluntarioa ez da inoiz bakarrik geratzen ikasleekin, irakasleak bere rola betetzen jarraitzen du. Boluntarioen ekarpenekin, irakasleak bere praktika aberasten du. Boluntarioentzat, esperientzia hau aberasgarria da ere, esperientzia berria ezagutzen dutelako eta esperientzia horretatik ikasten dutelako. Beraz, boluntarioek, gauza berriak ekartzen dizkiote proiektuari: sormena, solidaritatea eta ilusioa, adibidez. Boluntarioen taldea gero eta anitzagoa izan, orduan eta ekarpen gehiago eta interakzio aberasgarriagoak, kalitatezkoa ikaskuntza dialogikoa sortuz (Elboj et al., 2002).

### **1.7. Ikas komunitateak Euskal Herrian**

Euskal Herrian, Ikas Komunitateen proiektua, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza departamentuaren eta CREAren arteko 4 urteko hitzarmen baten ondorioz sortzen da. Honetan, CREAren proiektua martxan jartzen da Euskadiko 4 zentrotan. Euskadiko lehenengo zentroa, Portugaleteko (Bizkaia) CEP “Ruperto Medina” zentroa izan zen, 1995-1996 kurtsuan esperientziarekin hasi zena. CREAK, lehenengo eraldaketa prozesua hasi zuen Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako eskola honetan. Geroago, 1996-1997 kurtsuan, beste hiru zentro gehitzen dira esperientzia honetara, Vitoria-Gasteizko “Ramon Bajo” zentroa, Bilboko “Artatse” zentroa eta Gipuzkoako “Virgen del Carmen” zentroa. Hau egiteko, Ikas Komunitateen taldea sortu zen, eraldaketa proiektua ahalbidetu zuena. Baina proiektu hau beste pertsona askori esker atera da aurrera (zentro horietako irakasleak, aholkulariak edota auzoko pertsonak), eta beste zentro batzuetan proiektu hau garatzea lortu dute. Urte hauetan zehar, Espainia osoan zentro asko eraldatu dira Ikas Komunitateetan, eta gaur egun, 192 zentrok gutxi gorabehera daukate proiektu hau, Haur Hezkuntzako eta Lehenengo Hezkuntzako zentroak, Bigarren Hezkuntzako zentroak, Zentro Integralak, Hezkuntza Bereziko zentroak eta Pertsona Helduen zentroak. Ia 200 zentro hauetatik, 35 gutxi gorabehera

Euskadiko zentroak dira<sup>6</sup>, 28 Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zentroak (CEP Artaza Pinueta LHI, CEP Belaskoenean LHI, CEP Deusto LHI, CEP Elejabarri LHI, CEP Labastida LHI, etab.) 3 Bigarren Hezkuntzako zentroak (IES Astrabudua BHI, IES Mungia BHI eta IES Sansomendi) eta 4 Helduentzako zentroak (Circulo Zaramaga, Circulo Prisión Nanclares, EPA Paulo Freire eta EPA Urola Kosta HHI) (Racionero & Serradell, 2005).

### 1.8. Elejabarri eskolako esperientzia

Elejabarri eskola, Ikas Komunitateen proiektua aurrera eramaten duen eskoletariko bat da, baina eskolako zuzendari taldeko kide batek esan zidan moduan, ez da betidanik horrela izan. Elejabarri eskola, 1971an eraiki zen, Bilboko 7.barrutian, Rekaldeberrin<sup>7</sup>. Barruti honek, 44.557 biztanle ditu, bost auzoetan banatuak, Ametzola, Iralabarri, Rekaldeberri- Larraskitu, Uretamendi eta Iturrigorri-Peñascal. Barrutiaren muga batean, Rekaldeberri auzoan, Elejabarri eskola dago kokatuta. Esan dudan moduan eta zuzendaritza taldeko kideak esan zidanarekin bat eginez, Elejabarri eskola<sup>8</sup> 1971an eraiki zen eta 800 matrikula izatera heldu zen. Baina 1990an, White Flight fenomenoaren antzekoa eman zen eta bertako ikasleak eskolatik alde egin zuten, ikasle ijitoak eta etorkinak geratuz soilik. Hau horrela izan zen, jantokiaren zerbitzua ez zegoelako, A ereduan zentratu zirelako eta ijito asko heltzen ari zirelako. Horregatik, hortik aurrera, eskolako gehiengoa ijitoak edo etorkinak ziren.



Orduan, 2011-12 kurtsoan eskolaren egoera ikusita, aldaketaren beharra ikusten da. Zerbitzu komisiotik 4 pertsona heltzen dira, Ikas Komunitatea proiektuaren bidez eskolaren egoera aldatu nahi dutenak. Zuzendaritza taldeko kideak esan zidan moduan, bertara heltzen direnean, eskolako egoera oso latza da, atea apurtuak, 50-60 ikasle, familien parte hartze nulua, oihuak, gatazka ugari, urte bakoitzean 11 irakasle berri (14 irakasleetatik), erasoak

<sup>6</sup> Informazio gehiago lortzeko, hurrengo web orria kontsulta daiteke: <http://utopiadream.info/ca/>

<sup>7</sup> Informazio gehiago lortzeko, hurrengo web orria kontsulta daiteke: <http://www.bilbao.net/>

<sup>8</sup> Informazio gehiago lortzeko, hurrengo web orria kontsulta daiteke: <http://www.elejabarrieskola.org>

irakasleei (familien eskuz), etab. Orduan, hori aldatu behar dela ikusten dute eta proiektuaren bidez egitea erabakitzen dute. Baina bertan dagoen zuzendari taldeak ez du balio horretarako, ez dutelako proiektuan sinesten. Horregatik, ailegatzen diren 4 pertsona horiek zuzendaritza taldeaz arduratu behar dira, nahiz eta horri buruz ezer ez jakin.

2010-11 kurtsuan ametsaren elaborazioa ematen da, 2011-12 kurtsuan aldaketaren beharra ikusten da, 2012-13 kurtsuan talde berria eskolara heltzen da eta 2013-14 kurtsuan eraldaketa ikusten hasten da. Beraz, 2012-2013an talde berria sartzten da eskolan eta Ikas Komunitateen proiektuarekin hasten dira, eskolaren egoera aldatzeko helburuarekin. Elejabarri eskolan, aurretik aipatutako **arrakastazko jarduera guztiak** eramaten dituzte aurrera, sakontze maila desberdinekin, baina aurten guztiak batera aurrera eramaten saiatzen ari dira:

- Talde elkarreragileak: Haur Hezkuntzan, 4/5 urteko gelan eta Lehen Hezkuntzan lehenengo, bigarren eta hirugarren zikloetan eramaten dituzte aurrera, gutxienez astean birritan.
- Tertulia dialogikoak: Lehen Hezkuntzan eta senideekin egiten dituzte.
- Senideen formakuntza: 25 senideekin gutxi gorabehera egiten dute, astelehen, ostegun eta ostiraletan.
- Komunitatearen partaidetza: Boluntarioak, Gaztelekuko gizarte hezitzaileak eta senideak parte hartzen dute.
- Irakasleen Formakuntza dialogikoa: Solasaldi pedagogikoak egiten dituzte, "El aprendizaje dialógico en la Sociedad de la Información" rekin adibidez.
- "Modelo Dialógico de Prevención de Conflictos": Hezkidetzaren planari esker, honekin hasi dira, batzorde mistoa osatu dute aurten, arau orokorra ateratzeko datorren ikasturtean.

## 2. Helburuak

### • Helburu orokorra:

- Elejabarri eskolan, Ikas Komunitateen bitartez eman den aldaketa prozesua aztertzea eta proiektuak duen eraginkortasuna aztertzea.

- **Helburu espezifikoak:**

- Elejabarri eskolan, Ikas Komunitate proiektua hasi baino lehen zeuden ikasle kopurua eta ikasleen ezaugarriak eta gaur egun dauden ikasle kopurua eta ikasleen ezaugarriak ikustea eta konparatzea.
- Elejabarri eskolan, Ikas Komunitate proiektua hasi baino lehenengoko ikasleen absentismo maila eta gaur egungo ikasleen absentismo maila aztertzea eta konparatzea.
- Elejabarri eskolan, Ikas Komunitate proiektua hasi baino lehenengoko ikasleen jarrera eta gaur egungo ikasleen jarrera aztertzea eta konparatzea.
- Elejabarri eskolan, Ikas Komunitate proiektua hasi baino lehenengoko ikasleen Lengua-Castellana irakasgaiko emaitzak eta gaur egungo ikasleen Lengua-Castellana irakasgaiko emaitzak aztertzea eta konparatzea.
- Elejabarri eskolan, Ikas Komunitate proiektua hasi baino lehenengoko eta gaur egungo irakasleen, familien eta ikasleen arteko erlazioa eta harremanak konparatzea.

### **3. Hipotesiak**

- Elejabarri eskolan gaur egun dagoen egoera, Ikas Komunitateen proiektua hasi baino lehenagoko egoera baino hobeagoa da: ikasle kopuruari eta ikasleen ezaugarriari dagokionean, absentismo mailari dagokionean, jarrerari dagokionean, emaitzei dagokienean eta irakasleen, familien eta ikasleen arteko erlazioari dagokionean.



#### 4. Metodologia

Nire helburuak lortzeko, nire hipotesiak kontrastatzeko eta Elejabarri eskolako egoera aztertzeko, metodologia kualitatiboa erabiliko dut. Izan ere, behar ditudan datuak eta informazioa biltzeko, garrantzitsua ikusi dut metodologia mota honen teknikak erabiltzea.

**Metodologia kualitatiboak**, honi egiten dio erreferentzia: *“Investigación acerca de las experiencias de las personas, comportamiento, emociones, sentimientos, fenómenos sociales y culturales entre comunidades. En donde se requiere un análisis interpretativo de la información”* (Corbin y Strauss, 2007, 56). Metodologia mota honek, ezaugarri desberdinak ditu: fenomeno baten ezaugarrien deskripzioan datza; induktiboa, malgua, deskriptiboa eta sakona da; ikuspuntu holistikoa du; pertsona ikerketaren objektua da; ikuspuntu guztiak baliozkoak dira; prozesuari ematen dio garrantzia; ikertzaileak prozesuan eragina du; subjektibotasuna; datu aberatsak eta sakonak lortzen ditu, errealitate dinamikoa, etab. (Bisquerra, 1989).

**Metodologia kuantitatiboa** berriz, Rodriguezek (2010, 36) dioten moduan, *“se centra en los hechos o causas del fenómeno social, con escaso interés por los estados subjetivos del individuo”*. Beraz, hipotesiak egiaztatzeko, datuak batzen dira, zenbakizko neurketan eta analisi estatistikoan oinarrituz (Hernández, Fernández & Baptista, 2010). Metodologia honek, ezaugarri desberdinak ditu: positibismo logikoan zentratuta dago; neurketa kontrolatua da; deduktiboa da; emaitzetan zentratuta; datu solidoak eta errepikakorrak; errealitate estatikoa; ikertzaileak ez du datuetan eragiten; objektibotasuna; ikerketaren datuen artean argitasuna egon behar da, etab.<sup>9</sup> (Corbeta, 2003).

Beraz, hau ikusita, **metodologia kualitatiboa** erabiliko dut nire ikerketa egiteko. Izan ere, Elejabarri eskolako egoera aztertzeko eta nire helburuak lortzeko, oso garrantzitsua iruditzen zait esperientzia bizi izan duten pertsonen iritzia jakitea eta kontuan hartzea, modu subjektibo batean prozesua aztertuz eta ez soilik emaitzak.

---

<sup>9</sup> Metodologia kualitatiboaren eta kuantitatiboaren arteko desberdintasunak, lehenengo eranskinean dagoen taulan ikusi daitezke.

Metodologia kualitatiboaren barruko tekniken artean, nire ikerketa egiteko **elkarrizketa** erabiltzea erabaki dut<sup>10</sup>. Izan ere, errealitate soziala aztertzeko, elkarrizketa teknika kualitatibo ohikoena da, pertsonen sinesmenak, jarrerak, iritziak, baloreak eta ezagutzak batzea ahalbidetzen duelako (Acevedo, 1988). Aktoufek (1992) dioten moduan:

*”La entrevista se define como la conversación de dos o más personas en un lugar determinado para tratar un asunto. Técnicamente es un método de investigación científica que utiliza la comunicación verbal para recoger informaciones en relación con una determinada finalidad” (91).*

Elkarrizketa bat egiteko, aspektu desberdinak kontuan hartu behar dira. Hasteko, elkarrizketaren egiturari dagokionez, elkarrizketa ez egituratua egingo dut, hau da, galdera irekiak egingo ditut. Honetarako, inbutuaren teknika erabiliko dut, galdera zabaletatik hasiz, galdera zehatzetara sartuz. Nire elkarrizketa bloke desberdinetan banatuko dut eta bloke bakoitzaren barruan galdera batzuk sartuko ditut. Honetaz gain, elkarrizketa indibiduala egingo dut, soilik elkarrizketatzaile bat eta elkarrizketatu bat. Kontuan hartu beharreko beste aspektu bat, elkarrizketa egiteko modua da. Nire kasuan, aurrez aurreko elkarrizketa izango da, uste dudalako modu egokiena dela galdera irekiak, zabalak eta sakonak egin ahal izateko. Azkenik, lekuari dagokionez, berdintasunezko giroa sortzeko kokapena erabiliko dut. Eskolako zuzendari bulegoan egingo ditut elkarrizketak, status desberdintasunik sortu gabe, elkarrizketatzailea aulki batean eta elkarrizketatua aurrean beste aulki batean, berdintasunezko eta konfiantzako giroa sortuz.

Hau guztiaz gain, kontuan hartu beharreko beste aspektu batzuk ere badaude: galdera argiak eta ordenatuak egin; hasierako harreman egokia sortu, galderekin hasi baino lehen hizketaldi bat izatea komeni da, elkarrizketarekin erlazioa ez duena; giro egokia sortu; konfiantzazko giroa sortu; eroso sentiarazi elkarrizketatua; jarrera enpatikoa izan; berdintasunezko egoera sortu; errespetuarekin jokatu; interesa erakutsi; elkarrizketatua entzun; ez baldintzatu erantzunak; ez egin mozketak; behatu; amaiera adeitsu batekin bukatu elkarrizketa. (Mayer & Ouellet, 1991).

---

<sup>10</sup> Egingo ditudan elkarrizketak bigarren eranskinean ikusi daitezke

## 5. Lanaren garapena

Aurretik aipatu dudan moduan, nire ikerketa egiteko, elkarrizketak erabili ditut. Hiru elkarrizketa egin ditut<sup>11</sup>, zuzendaritza taldeko kide bati, irakasle bati eta ikasle batzuen ama bati, hain zuzen ere. **Hiru elkarrizketa** hauek egitea erabaki dut, uste dudalako garrantzitsua dela hiru ikuspuntu desberdin hauek ezagutzea. Zuzendaritza taldeko kideari dagokionez, haiek heldu zirenean hasi zen egoera aldatzen eta beharrezkoa ikusi dut bere esperientzia ezagutzea. Irakasleari dagokionez, proiektua hasi baino lehen zegoen irakasle bati egitea erabaki dut, proiektua hasi baino lehen zegoen egoera hobeto deskribatu ahal izango duen pertsona delako, egoera bizi izan duelako. Eta azkenik, ama bati egitea erabaki dut, uste dudalako familien iritzia garrantzitsua dela ere. Beraz, hiru elkarrizketa hauetatik jaso ditudan datuak, landu dudan marko teorikoaren itzalpean interpretatuko ditut. Nire ikerketa, Elejabarri eskolan Ikas Komunitateen proiektua hasi baino lehen zegoen egoera eta gaur egungo egoera konparatzean oinarritu da. Eskolako hainbat aspektu desberdin konparatu ditut, hainbat kategoria: ikasle kopurua eta ikasleen ezaugarriak; ikasleen absentismo maila; ikasleen jarrera; ikasleen “Lengua-Castellana”ko emaitzak eta irakasleen, familien eta ikasleen arteko erlazioa, lanaren helburuetan zehazturik dagoen bezala. Beraz, kategoria edo aspektu hauek banan-banan aztertzeari ekin diot.

**Ikasle kopuruari eta ikasleen ezaugarriari** dagokionez, aldaketa nabaria egon da eskolan. Zuzendaritza talde berria eskolara heldu zenean, 63 ikasle zeuden. Nahiz eta hasieran ikasle kopuruak pixka bat behera egin, gaur egun 76 ikasle inguru dituzte. Hau da, ikasle kopuruak gora egin du, proiektua hasi zenetik hona. Ikasleen ezaugarriari dagokionez, proiektua hasi baino lehen, ikasleen %80a ijitoak ziren. Gaur egun, berriz, aniztasun handiagoa dago eskolan. Egia da, gaur egun ere ijitoak direla gehiengoa eskolan, baina lehen ikasleen %80 ijitoak izatetik, gaur egun ikasleen %55a ijitoak izatera pasatu dira. Ijitoez gain, Asiako, Afrikako, Ameriketako eta Euskal Herriko umeak daude baita ere.

---

<sup>11</sup> Elkarrizketen transkripzioak, hirugarren eranskinean topa daitezke.

*“Cuando entramos nosotros, en septiembre, había 63 alumnos matriculados “...” y hoy en día tenemos a 76 niñas y niños matriculados”. “Cuando entramos nosotros aquí, el 80% del alumnado era de cultura gitana “...”. Hoy en día, tenemos más diversidad, y aunque la cultura mayoritaria que halla en la escuela, sea la cultura gitana, con un 55%, tenemos también niños de Asia, tenemos niños de África, tenemos niños de América y tenemos niños que han nacido aquí, en Vizcaya o en otras comunidades autónomas de aquí.”<sup>12</sup> (E1 – J)*

Beraz, marko teorikoan ikusi dudana moduan, proiektu hau, bazterte sozialaren ondorioz, desberdintasunak nagusi diren hezkuntza zentroetara zuzentzen da, batez ere. Elejabarri eskola, zentro hauetako bat zen eta bazterte soziala pairatzen zuen, ikasleen gehiengoa ijitoak izanik. Baina aurretik esan dudana moduan, proiektu honen bidez, zentroetan heziketa dinamikak eta dinamika sozialak hobetu ahal dira, bazterte soziala eta eskola porrota saihestuz. Elejabarri eskolan, proiektu honen bidez, bazterte sozialaren kontra egiten ari dira. Gaur egun, nahiz eta ijitoak gehiengoa izaten jarraitu, beste leku batzuetako ikasleak daude eta beraz, bazterte sozialak behera egin du. Gainera, ikaskuntza dialogikoa erabiltzen dute eskolan, honen bidez, berdintasunezko elkarrizketa, adimen kulturala, aldaketa eta solidaritatea sustatuz. Eskolan, guztiontzako lekua dago, guztiek iritzia emateko aukera daukate, bakoitzaren bizi esperientzia aberasgarria da eta pertsonen besteekin erlazioz ikasten dute eta elkar aberasten dira.

**Ikasleen absentismo mailan zentratuz**, hobekuntza nabaria egon da ere proiektua hasi zenetik hona. Lehenengo urtean, absentismo mailan %54ko hobekuntza bat egon zen, urte batetik bestera. Egia da, aurten absentismo maila ez dela gehiago jaitsi, baina nahiz eta aurten hobekuntzarik ez eman, proiektua hasi zenetik hona, absentismo mailak behera egin du modu nabarian. Absentismo mailak behera egitea lortu da, hainbat neurri ezarri direlako. Alde batetik, faltan kontua askoz gehiago kontrolatzen da. Tutoreek kontrola eramaten dute eta haur batek bi falta segidan egiten dituenean familiari dei egiten diote, jakiteko gaixorik dagoen edota falta justifikatuta dagoen. Beste

---

<sup>12</sup> Kurtsiban agertzen diren zatiak, elkarrizketen zatiak dira. Elkarrizketa horietatik gehiago irakurri nahian, hirugarren eranskinean aurki daitezke.

alde batetik, protokolo bat ezarri da eskolaren eta udalek kontratatutako elkarte baten artean, Heber elkarte<sup>13</sup> hain zuzen ere. Honek, programa desberdinak ditu eta hauen artean “eskola eta familia bitartekotza” programa dago, absentismoren kontra egiteko erreminta bezala ikusten dena. Elkarreak, programa hau erabiltzen du eskolan dagoen absentismo maila murrizteko. Hiruhileko bakoitzean ikasleria osoko faltan txostena egiten da, eta aipatutako elkarteari bidaltzen diote. Elkarre honek, familiak bisitatzen ditu, faltak murrizteko. Gainera, Hezkuntza Saila, adingabeko fiskalarekin harremanetan dago, faltan arazoa adingabe babesik-gabeko arazoa bihurtzen denean.

*“Con respecto al primer año, sigue habiendo una mejora también, el año pasado creo que era mejora de un 54%, en porcentajes de un año al otro.”*

*(E1 – J)*

Marko teorikoan, hainbat arrakastazko ekintza desberdin ikusi ditugu, proiektu honen barnean aurrera eramaten direnak. Elejabarri eskolan, ikusi ditugun arrakastazko ekintza guzti horiek aurrera eramaten dira. Talde interaktiboak egiten dira Lehen Hezkuntzako talde guztietan eta Haur Hezkuntzako talde gehienetan, tertulia dialogikoak egiten dira irakasgai desberdinetan, komunitatearen parte hartzea dute zentroan, familien formazioa dago, irakasleen formazio dialogikoa dago eta prebentzioaren eta gatazken erresoluzioaren eredu dialogikoa jarraitzen dute. Arrakastazko ekintza hauen bidez, ikasleen interesa lortu dute eta honen bidez, absentismo mailak behera egin du eta, beraz, ikasleak lehen baino gehiago joaten dira eskolara.

*“Nuestros niños y niñas ahora están orgullosos de ser de Elejabarri” (E1- J)*

Aztertu dudun hirugarren kategoria, **Ikasleen “Lengua- Castellana”- ko emaitzak** izan da. Aurreko bi kategorietan bezala, elkarrizketetan esan zidatena kontuan hartuz, kategoria honetan hobekuntza egon da ere. Egia da, espedientean edo buletinetan, ikasgai horretako emaitzak antzekoak direla edo ez direla modu nabarian igo hasieratik hona, baina exijentziak gora egin du. Exijentziak gora egin du eta emaitzak ez dira behera joan, mantendu dira, ez gairituak daude oraindik eta jendeak errepikatzen jarraitzen du. Baina

---

<sup>13</sup> Elkarre honi buruz gehiago jakin nahian, hurrengo web orria kontsultatu daiteke: <http://www.heberelkarrea.net/>

exijentzia maila askoz ere altuagoa da. Izan ere, zuzendaritza talde berria eskolara heldu zenean, maila akademiko oso baxua zegoen. Proiektuaren helburua, ikaskuntzan hobekuntza lortzea zen eta nahiz eta buletinetan asko ez nabari, helburu horrekin aurrera egiten ari dira. Izan ere, hobekuntza nabaria da gauza guztietan, bizikidetasuna hobetu da eta hau hobetzen denean, emaitzak hobetzen dira, eskutik doazen kontzeptuak direlako, bizikidetasuna eta emaitzak. Buletinetan ez da hobekuntza asko nabaritu, baina exigentziak gora egin duelako. Buletinetako emaitzak alde batera utziz, hobekuntza nabaritu dute esparru askotan, irakurketa mailan, idazkeran, kaligrafian, idatzizko espresioan, etab. Beraz, gaur egun egoera asko aldatu da, umeei gehiago ikasten dute, irakurtzen ikasi dute, idazkeran hobetu dute eta euskara ikasten ari dira.

*“Me encontré un centro con un nivel académico muy bajo”. “La mejora es evidente, en todo. Porque cuando mejora la convivencia, mejoran los resultados, y sin mejora del resultado, no hay mejora de la convivencia. Es algo que va de la mano.” “También es cierto, que hemos empezado a aumentar la exigencia. Entonces, en los boletines muchas veces no se ven estos cambios que te estoy comentando. Sigue habiendo suspensos, sigue habiendo repetidores, pero la exigencia que tenemos este año, no tiene nada que ver con la que teníamos hace tres años, cuando empezamos.” (E1- J)*

*“Antes apenas estudiaban los niños.” “Antes de empezar con el proyecto ya me había planteado cambiar a mis niños del colegio, porque veía que aquí no aprendían.” “Ahora están aprendiendo mucho... han mejorado mucho, ahora los que están en primaria saben leer y escribir mucho mejor que antes.” (E2- Y)*

Beraz, marko teorikoan ikusi dudak moduan, proiektu honek, bi lehentasunei erantzuna ematea lortu nahi du, errendimendu akademikoa hobetzea eta bizikidetasun arazoak hobetzea (Rodríguez, 2012). Hau da, proiektuak guztiok ahalik eta hezkuntza hoberena izatea sustatzen du, guztion gaitasunak bultzatuz eta azpimarratuz, honetarako komunitatearen laguntza erabiliz. Elkarrizketetan esan didaten moduan, Elejabarri eskolan helburu hau lortu da eta bai bizikidetasunean, baita errendimendu akademikoan ere, hobekuntza lortu dute.

**Ikasleen jarrerari** dagokionez, aldaketa nabaria ikusten ari da ere. Lehen gatazka eta arazo ugari zeuden. Gaur egun gatazkak daude ere, baina askoz gutxiago. Eskola guztietan egoten dira gatazkak, baina gaur egun, Elejabarrin, askoz hobeto erantzuten diete arazoei, eta noski, askoz ere arazo edo gatazka gutxiago egoten dira, umeen jarrera hobetu delako. Hau “gela morean” nabaritzen da. Zuzendaritza talde berria eskolara heldu zenean, “gela morea” sortu zuten, non txarto portatzen ziren umeak joaten ziren bertara, zigor baten moduan. Hasieran, gela hori gainezka egoten zen, ume asko joaten ziren bertara egunero, txarto portatzen ziren umeak. Gaur egun, berriz, hutsik egoten da egun gehienetan, ikasleen jarrera asko hobetu delako.

Gatazkak alde batera utziz, ikasleen jarrera, konfidantzarik gabeko jarrera zen. Ez zuten konfidantzarik irakasleekin. Izan ere, irakasleak askotan aldatzen ziren, kurtso batean, 15 ikasleko klaustro batetik, 70 irakasle inguru pasatzen ziren eta, beraz, ez zen ez konfidantzarik, ez loturarik sortzen ikaslearen eta irakaslearen artean. Gaur egun, egoera hori guztiz aldatu da. Lehen 15 ikasleko klaustrotik, soilik 4 mantentzen ziren kurtso batetik bestera, besteak aldatzen ziren askotan. Gaur egun, klaustro horretan 11 mantentzen dira finko urte batetik bestera eta, beraz, lehen sortzen ez zen konfidantza eta lotura hori, orain agerikoa da.

*“Me encontré un centro con un nivel de conflictividad bastante elevado”. “Esta no es la misma escuela, y no porque hayamos pintado las paredes y porque hayamos decorado diferente, sino porque nuestros niños, ahora se dedican a trabajar”. “La actitud de los alumnos era de desconfianza”. “Al principio los profesores éramos los enemigos, éramos los payos que venían aquí a ponerles a pintar. Ahora todos nos conocen por nuestros nombres, el cambio ha sido abismal”. “Hay muchísimos menos conflictos que antes.” (E1 – J)*

*“Me encontré un clima de bastante violencia, de faltas de respeto...”. “Si hay mejora en el comportamiento de los alumnos, excepto en casos puntuales”. “En general, la actitud de los alumnos era bastante chulesca, yo creo que de bastante rechazo a los profesores y de bastante violencia”. “Hoy en día, en el trabajo que se hace con los alumnos, sí que hay un ritmo más o menos normalizado y se puede trabajar con ellos. (E3 – B)*

Aldaketa hau, elkarrizketaren bidez lortu da. Izan ere, marko teorikoan ikusi dudan moduan, prebentzioaren eta gatazken erresoluzioaren eredu dialogikoa aurrera eramaten da eskolan. Aurretik esan dudan moduan, eredu honetan, elkarrizketa erabiltzen da desberdintasunak gainditzeko eta konfliktuei aurre egiteko. Eredu honek, bizikidetasunaren hobekuntza kualitatiboa ekartzen du, bai zentroan, baita komunitatean ere; elkarrizketak, gatazkek aurreikusten ditu. Beraz, gatazka bati aurre egiteko, pertsona guztien iritzia eta argudioak entzun behar dira. Elejabarrin eredu hau erabiltzen ari dira, bizikidetasuna asko hobetu da eta gatazkek gutxitu dira. Izan ere, proiektu honek, bi lehentasunei erantzuna ematea lortu nahi du, errendimendu akademikoa hobetzea eta bizikidetasun arazoak hobetzea (Rodriguez, 2012).

Aztertu dudan azkenengo kategoria, **“irakasleen, familien eta ikasleen arteko harremanak”** izan da. Honetan, gauza gehienekin bezala, aldaketa nabaria egon da eskolan, bai hauen arteko erlazioari dagokionean, baita hauen parte hartzeari dagokionean ere. Aurreko atalean esan dudan moduan, proiektuarekin hasi baino lehen, ikasleen eta irakasleen arteko erlazioa, konfidantzarik gabekoa eta errespetu faltaz beteriko erlazioa zen. Esan dudan moduan, urte batean, 70 irakasle inguru pasatzen ziren klaustrotik. Horrek ikaslearen eta irakasleen artean lotura ez sortzea ekartzen du, eta konfidantza falta handia. Gainera, errespetu falta handiak egoten ziren ikasleen aldetik, ez zituzten irakasleak errespetatzen eta nahi zutena egiten zuten. Gaur egun, egoera guztiz aldatu da. Gaur egun 15 irakasleko klaustro batean, 11 irakasle finko mantentzen dira urte batetik bestera. Hori dela eta, gaur egun irakaslearen eta ikaslearen artean, maitasuna, laguntza, lotura eta konfidantza agerikoa da. Egia da batzuetan gatazkek eta errespetu faltak sortzen direla, baina lehen baino askoz ere gutxiago.

Irakasleen eta familien arteko erlazioari dagokionez, lehen gatazkek egoten ziren bien artean, familiak irakasleen kontra zeuden, komunikazio falta izugarria zegoen, familiek ez zuten ezertan parte hartzen, etab. Gaur egun, egoera guztiz kontrakoa da. Gaur egun, familiek erlazio oso ona daukate irakasleekin, eskolaren parte dira, eskolan parte hartzen dute. Eskolak, familientzako formazioa eskaintzen du ere eta gaur egun, 30 familia inguru



joaten dira bertara. Eskolako jaietan parte hartzen dute eta laguntzen dute (Gabonetako jaia, inauteriak, kurtso amaierako festa). Honetaz gain, eskolan egiten diren talde elkarreragileetan parte hartzen dute boluntario moduan.

*“La relación profesor-alumno era una relación muy distante, había una desconfianza absoluta”, “Esa relación de distancia y de desconfianza se cambió ya el año pasado, ahí dimos la vuelta al claustro”, “Ahora, a todos nos conocen por nuestros nombres, sus familias nos conocen, nosotros les conocemos”, “Me encontré un centro en el que no había comunicación entre familias y profesorado”, “La relación con las familias ha mejorado”, “Cuando llegamos nosotros la familia apenas participaba, y bueno ahora son parte de nuestra comunidad” (E1 – J)*

*“Los profesores siempre eran nuevos, y tanto los niños como nosotros no teníamos muy buena relación con ellos”, “la relación que tenemos con los profesores es mucho mejor”, “Nos dan muchas oportunidades para participar en el colegio” (E2 – Y)*

*“Los alumnos hacían frente al profesor, había faltas de respeto”, “Los niños, tenían que ver profesores nuevos todos los días”, “Ahora es mucho mejor”, “Ahora se implican bastante los padres y madres” (E3 – B)*

Beraz, marko teorikoan esan dudari moduan, proiektu hau, klabe pedagogiko batzuetan oinarritzen da (Elboj et al. ,2002). Hauen artean, Elejabarri eskolan argi ikusten den parte hartze aktiboa daukagu. Zentroan aurrera eramaten diren ekintzen planifikazioan, errealizazioan eta ebaluazioan, guztiek (irakasleek, familiek, boluntarioek, instituzioek, auzoko erakundeek) parte hartzen dute modu aktiboan. Eskolan, marko teorikoan ikusi dugun ikaskuntza dialogikoa aurrera eramaten da. Hau, berdintasunezko elkarrizketan eta pertsonen arteko harremanetan oinarritzen den ikaskuntza da. Aipatutako harreman horiek, ikaslearen eta irakaslearen artean sortzeaz gain, komunitateko kide desberdinekin sortzen dira ere (familia, auzoko erakundeak, hezkuntzako beste profesionalak, boluntarioak), Elejabarri eskolan gertatzen den moduan.

Azkenik, proiektu honen arrakastazko ekintzen artean, komunitatearen parte hartzea zentroan eta familien formazioa daude. Lehenengoan, familiek eta komunitateko beste kideek, ikasleen ikaskuntza aktibitateetan parte hartzen dute, bai eskolako ordutegian, baita eskolaz kanpoko ordutegian ere. Bigarreanean, zentroyen formazio eskaintza, ez da soilik ikasleei irekitzen, familiei ere irekitzen da. Zentroak, espazioak eta formaziorako programak eskaintzen die familiei, haien eskaerak, interesak eta beharrak kontuan hartuz (INCLUDED 2011). Beraz, egindako ikerketaren bidez ikusi dudana kontuan hartuz, INCLUDED (2011) aipatutako parte hartze motetatik, Elejabarri eskolan parte hartze erabakitzailea, parte hartze ebaluatzailea eta parte hartze hezitzailea dagoela esango nuke.

## 6. Emaitzak eta ondorioak

Behin nire ikerketa eginda eta horren analisisa eginda, emaitzak eta ondorioak islatzeari ekingo diot. Ikerketarekin hasi nintzenean, hipotesi edo uste batzuk nituen Elejabarri eskolan zegoen egoerari buruz, hipotesi bat hain zuzen ere. Elejabarri eskolan gaur egun dagoen egoera, Ikas Komunitateen proiektua hasi baino lehenagoko egoera baino hobeagoa zela: ikasle kopuruari eta ikasleen ezaugarriei dagokionean, absentismo mailari dagokionean, jarrerari dagokionean, emaitzei dagokienean eta irakasleen, familien eta ikasleen arteko erlazioari dagokionean.

Behin egoeraren ikerketa eginda, hipotesi horiek baieztatzeko moduan nago. **Absentismo mailari** dagokionean, %54ko hobekuntza egon da proiektua hasi zenetik hona, beraz aldaketa nabaria eman da. **Ikasle kopuruari eta ikasleen ezaugarriei** dagokienean, aldaketa nabaritu da ere. Izan ere, proiektua hasi zenetik hona 15 ikasle gehiago dituzte gutxi gorabehera. Gainera, lehen ikasleen %80a ijitoak ziren, eta gaur egun %55a gutxi gorabehera, beraz, proiektuak, eskolara ikasle gehiago etortzea eta aniztasun handiagoa egotea ekarri du. **Ikasleen jarrerari** dagokionean, hobekuntza nabaria egon da ere. Lehen, gatazka asko egoten ziren, konfidantzarik gabeko jarrera erakusten zuten, jarrera txarra, etab. Gaur egun, eskola guztietan

bezala, jarrera txarrak eta gatazkak ere badaude, baina askoz neurri baxuagoan, askoz gatazka gutxiago daude, umeen jarrera hobetu delako eta konfidantza gehiago dutelako irakasleengan. **Ikasleen “Lengua-Castellana”-ko emaitzei** dagokienean, hobekuntza egon da, baina buletinetan nabaritu ez dena. Buletinetako emaitzek antzekoak izaten jarraitzen dute, baina exijentzia maila asko igo da. Hori dela eta, nahiz eta buletinetan hobekuntzarik ez nabaritu, hobekuntzak egon dira, exijentzia maila askoz altuagoa delako. Azkenik, **irakasleen, familien eta ikasleen arteko harremanei** dagokienean, hobekuntza eta aldaketa nabaria egon da ere. Lehen konfidantzarik gabeko, gatazkaz beteriko eta arazoz beteriko harremana zegoen haien artean. Gaur egun, egoera guztiz kontrakoa da, ikasleek eta familiek konfidantza handia dute irakasleengan, askoz gatazka eta arazo gutxiago egoten dira haien artean ... Gaur egun, orokorrean, harreman onak egoten dira ikasleen, familien eta irakasleen artean. Beraz, nire hipotesian esan dudan moduan, Ikas Komunitateen proiektuak eragin handia izan du Elejabarri eskolan eta aldaketa prozesu nabaria eman da.

Amaitzeko, esatea, Elejabarri eskolan gaur egun dagoen egoera, Ikas Komunitateen proiektua hasi baino lehenengoko egoera baino askoz hobea da dela. Proiektua hasi zenetik aldaketak nabariak izan dira, aurretik aipatutako aldaketez gain, eskolaren egoera fisikoa hobetu da (ez daude gauzak apurtuak), irakasleen bajak asko gutxitu dira (14 irakasletatik soilik 4 berri egoten dira kurtso batetik bestera, besteak mantentzen dira), bizikidetasun hobea dago, parte hartze handiagoa, etab. Beraz, azterketa honen bidez, argi geratzen da dialogoak motibazioa sortzen duela, “ekintza arrakastatsuek” eragina dutela, aldaketa bultzatzen dutela eta Ikas Komunitateen proiektuak hezkuntza hobereana izatea sustatzen duela, guztion gaitasunak bultzatuz eta azpimarratuz, honetarako komunitatearen laguntza erabiliz. Baina nahiz eta horrela izan, eskolan oso argi daukate asko falta zaiela egiteko eta oraindik gauza askotan hobekuntza falta zaiela. Baina urte gutxi daramate proiektuarekin eta oraindik asko falta da hobetzeko. Beraz, eskola honetan eman den aldaketarekin, argi geratzen da aldaketa posiblea dela eta Ramon Flechak tertulia batean esaten zuen moduan *“Ametsak posibleak dira, errealitatea ametsik gabe hobetzea ezinezkoa da”*.

## 7. Erreferentzia bibliografikoak

- Acevedo, A. (1988). *El proceso de la entrevista: conceptos y modelos*. Mexico, D.F.: Limusa.
- Aktouf, O. (1992). *Méthodologie des sciences sociales et approche qualitative des organizations*. Sainte-Foy, Presses de l'Université du Québec.
- Álvarez, C., González, L., & Larrinaga, A. L. (2012). Aprendizaje dialógico, grupos interactivos y tertulias literarias: una apuesta de centro educativo que favorece la inclusión. En *Estilos de aprendizaje: investigaciones y experiencias: [V Congreso Mundial de Estilos de Aprendizaje]*, Santander, 27, 28 y 29 de junio de 2012.
- Aubert, A., Flecha, A., García, C., Flecha, R. y Racionero, S. (2008). *Aprendizaje dialógico en la Sociedad de la Información*. Barcelona: Hipatia.
- Bisquerra, R. (1989). *Métodos de investigación educativa. Guía práctica*. Barcelona: CEAC.
- Comer, J., Haynes, N., Joyner, E., & Ben-Avie, M. (1996a). *Rallying the Whole Village: The Comer Process for Reforming Education*. Nueva York: Teachers College Press.
- (1999b). *Child by Child. The Comer process for change in Education*. Nueva York: Teachers College Press.
- Corbetta, P. (2003). *Metodología y técnicas de investigación social*. Madrid: McGraw-Hill.
- Corbin, J. & Strauss, A. (2007). *Basics of qualitative research: Techniques and procedures for developing grounded theory* (3rd ed.). Thousand Oaks, CA: SAGE Publications, Inc.
- Diez- Palomar, J., & Flecha, R. (coords.) (2010). *Comunidades de Aprendizaje. Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 67 (24), 19-30.
- Diez-Palomar, J., García, P., Molina, S., & Rue, L. (2010). Aprendizaje dialógico en las matemáticas y en las ciencias. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 67 (24), 75-88.
- Elboj, C., Puigdemívol, I. Soler, M. y Valls, R. (2002). *Comunidades de aprendizaje. Transformar la educación*. Barcelona: Graó.
- Flecha, R. (1997). *Compartiendo palabras. El aprendizaje de las personas adultas a través del diálogo*. Barcelona: Paidós.
- Folgueiras, P. (2011). Las comunidades de aprendizaje. La escuela de adultos de la Verneda. Una experiencia de comunidades de aprendizaje. *Tendencias pedagógicas*, 18, 251-267.
- Freire, P. (2003). *Pedagogía del oprimido*. Madrid: Siglo XXI.
- García, C., Leena, A., & Preteñas, C. (2013). Comunidades de aprendizaje. *Scripta Nova. Revista electrónica de Geografía y Ciencias Sociales*, 17 (427).

- Hernández, R., Fernández Collado, C. & Baptista Lucio, P. (2010). *Metodología de la investigación*. México: Editorial Mc Graw Hill.
- INCLUDED (coord.). (2011). *Actuaciones de en las escuelas europeas*. Universidad de Barcelona: Estudios CREADE.
- Jaussi, M.L. (2003). Comunidades de aprendizaje en Euskadi. *Organización y gestión educativa: Revista del Fórum Europeo de Administradores de la Educación*, 11(5), 9-12.
- Levin, M. (1987a). «New Schools for the Disadvantaged». *Teacher Education Quarterly*, 14, 60-83.
- (1993b). *The accelerated schools resource guide*. San Francisco: Jossey-Bass Publishers.
- (1995c). Volver a pensar la educación. Vol II: Prácticas y discursos educativos. En *Congreso Internacional de Didáctica*. Madrid: Ediciones Morata. La Coruña: Fundación Paideia.
- Mayer, R. & Ouellet, F. (1991). *Métodologie de recherche pour les intervenants sociaux*. Boucherville, Gaëtan Morin Éditeur.
- Racionero, S., & Serradell, O. (2005). Antecedentes de las comunidades de aprendizaje. *Educar*, 35, 29-39.
- Rodríguez, M. A. (2010). *Métodos de Investigación diseño de proyectos y desarrollo de tesis en ciencias administrativas, organizacionales y sociales*. México.
- Rodriguez, J. (2012). Comunidades de aprendizaje y formación del profesorado. *Tendencias pedagógicas*, 19, 67-86.
- Sanchez, M. (1999). «La Verneda Sant Martí: A School where People Dare to Dream». *Harvard Educational Review*, 69 (3), 320-335.
- Slavin, R., Madden, N., Dolan, L. & Wasik, B. (1996). *Every child, every school: success for all*. Thousand Oaks (California): Corwin Press.
- Slavin, R. (1996). *Education for all*. Exton: Swets & Zeitlinger Publishers.
- Slavin, R., & Olatokunbo, S. (1998). *Show me the evidence: proven and promising programs for America's schools*. Thousand Oaks (California): Corwin Press.
- Valls, R. (2000). *Comunidades de aprendizaje. Una práctica educativa de aprendizaje dialógico para la sociedad de la información*. Tesis doctoral no publicada: Universidad de Barcelona.
- Vygotsky, L.S. (1979). *El desarrollo de los procesos psicológicos superiores*. Barcelona: Crítica.

#### Web orriak:

- <http://www.comunidadesdeaprendizaje.net>
- <http://www.edaverneda.org>
- <http://info.med.yale.edu/comer/>

- <http://www.successforall.net/>
- <http://www.acceleratedschools.net/>
- <http://utopiadream.info/ca/>
- <http://www.bilbao.net/>
- <http://www.elejabarrieskola.org>
- <http://www.heberelkartea.net/>